

2000ko URTARRILAREN 25ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi milako urtarrilaren hogeita bostean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Koldo Alaña Zinegotzia, preso dagoenez, eta bilkurara etortzeko baimenik eman ez diotenez, ez du etortzerik izan; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Berezian bildu dira, gai hau erabili delarik:

EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE MANIFESTOA

XXI. mendearen atarian gauden honetan, EUSKAL HERRIA behin betirako ASKATASUNA, mugarik gabeko DEMOKRAZIA eta letra handiekin idatziriko BAKEA eskuratzeko aukera historiko galduezinaren aurrean dago. Azkeneko hilabete hauetan Euskal Herriko gizarteak ezin nabarmenago adierazi du erantzunkizun historiko honi kemenez ekiteko borondatea, aurrerapauso ausartak emanaz Herri gisa dituen erronka nagusiei askatasunetik erantzun egokiak emateko.

Inolako zalantzarik gabe, ehundaka errepresaliatu politiko eragin dituen gatazka politiko baten iraupena da Euskal Herriak pairatzen duen arazo latz zein mingarrienetako bat; preso politikoaren auzia behin betirako ez konpontzeak ezinezkoa egiten baitu demokrazia eta bakearen bidean urrats erabakior bezain atzeraezinak ematea. Hartara, zenbaezinak dira jada euskal gizarteak ia ahobatez Euskal Preso Politikoaren eskubide zibil nahiz politikoaren errespetoa aldarrikatzeko burutu dituen ekimenak. Gizarteko sektore anitzetatik eta gisa ezberdineko Instituzioetatik ozenki plazaratu da Euskal Herri osoaren garraxia: gizatasunaren gutxienezko arauak eskatzen dutelako, indarrean dagoen legediak agintzen duelako, Euskal Herriaren eraikuntzan beharrezkoak direlako eta batipat Euskal Herriak horrela erabaki duelako: EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA !!

Pasa dira kasik hiru hilabete dagozkien oinarrizko eskubideen aitortzan aurrerapausorik egon ezean, euskal preso politikoak gose greba mugagabe bat

ekin ziotela, preso askoren osasuna arrisku larrian dagoelarik. Euskal Herriak bere hitza eta erabakiaren defentsaren ardura preso politikoen bizkarrean ezin duela utzi pentsatuz eta gure herrietako gizartearen ordezkari izateak geureganantzen duen erantzunkizunari atxikituz astebeteko gose greba egitea erabaki dugu Euskal Herriko 28 alkatek. Baraualdi honetatik, Euskal Herriaren erdigunea den Altsasutik bertatik dei berezi bat egin nahi diogu euskal gizarteari presoek eskubideen aldeko jarduera indartu dezan.

Modu oso berezian Euskal Herriko Udaletxe nahiz Udalbatza guztiei zuzendu nahi gaitzaizkio urtarrilaren 25ean ez-ohizko Osoko Bilkurak antolatuz.

Idazkari honetan jasotzen diren aldarrikapenak beregain hartu ditzaten eta presoek eskubideen alde ondoko neurri zehatzak bideratu ditzaten:

- 1.- Presoek oinarritzko eskubide zein aldarrikapenak bitlzen dituen eta beraien defentsan herritarren partehartze zuzena eskatzen duen UDAL BANDOAK kaleratzea.
- 2.- Presoek eskubideen alde herrian antolatzen diren ekimenekin bat egin eta Udal Ordezkaritza baten partehartzea ziurtatzea.
- 3.- Euskal Presoek Eskubideak bermatzeko Udal Batzorde bat osatzea gizarte eragileekin batera lan egiteko.
- 4.- Presoek eskubideen urraketak eragiten duen zama ekonomikoa arintzeko dirulaguntza bat onartzea.
- 5.- Udalak argitaratzen dituen agiri nahiz inprimaki guzietan Euskal Presoak Euskal Herrira zigilua agertzeko erabakia hartzea.
- 6.- Udaletxeko balkoian eta Pleno Aretoan modu iraunkorrean Euskal Presoak Euskal Herrira ikurrak modu iraunkorrean eskegitea eta Udal Bando baten bidez herritar guztiei gauza bera egin dezaten eskatzea.

7.- Urtarrilaren 27rako euskal presoen defentsan gizarte eragile ezberdinek egin duten Greba Orokorrerako deialdiarekin bat egitea eta herritarren atxekimendua eskatzea.

Euskal Presoen eskubideen aldeko manifestoa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzi t`erdiak direnean.